

Zergatik ez du katalanez etiketatzen Coca-Colak?

Plataforma per la Llengua elkarteak katalanez etiketatzen ez duten enpresez ikerketa egin du. Coca-Colak komunitate katalanaren neurriko eta hiztun kopuru gutxiagoko hizkuntzetan etiketatzen ditu bere edariak. Hogei urteko eskariak ez du ezertarako balio izan.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

COCA-COLA edari enpresa multinazionalak 200 herrialdetan saltzen du eta 3.500 freskagarri, ur, zuku, te eta kafeak 135 hizkuntzatan etiketatzen ditu. Plataforma per la Llengua hogeitaz batzuetan saiatu da multinazionalak katalanez etiketatu dezan, baina ez du inondik ere halakorik lortu. Euskaraz ere ez du etiketatzen.

Plataforma per la Llengua egin-dako txostenean (*20 anys per l'etiquetatge en català*) elkarteak hogeitaz batzuetan luzatu duen borroka erakusten da. Elkartearen ustez, azpimarratzekoa da Coca-Colak katalan komunitateari ematen dion tratua, kontuan hartuko bagenu hiztun kopurua. Multinazionalak Europar Batasunean duen merkatuari erreparatuz gero, katalan hiztun komunitatea baino txikiagoak asko daude. Atzetik datoz frantsesa (Suitzan eta Belgikan), esloveniera, eslovakiera, kroaziera, mazedoniera, lituaniera, letoniera, daniera, islandiera eta beste.

Hiztun kopurua batetik, eta katalanek zenbat Coca-Cola kontsumitzen duten bestetik. 2013an Coca-Cola kontsumoa %13 igo zen Espainiako Estatuan. Eroslerik onenetakoa da Espainiako Estatuak. Coca-Colak Europar Batasunean saltzen duen %14 Espainiako Estatuan saltzen du; zerrendan aurrena Alemania dago (%17). Espainia nazioartean seigarren dago sailkatuta AEB, Mexiko, Japonia, Brasil eta Alemaniaren ondoren. Kataluniari dagokionez, honako alderaketa egin daiteke: katalan komunitateak Belgikako frantses eta nederlandera komu-



Mapan, katalan hiztun kopuruaren antzeko eta txikiagoko hiztun komunitateak ageri dira. Borobilok hiztun kopurua adierazten dute; proporzionalak dira. Hungaria eta grekera hiztun komunitateak baino ez dira katalana baino handiagoak. Berdez koloreztatutako komunitateetan Coca-Colak bertako hizkuntzan etiketatzen du.


nitateen hiztun kopuru bikoitza dauka. Alabaina, Belgikan frantsesez, nederlandaraz, eta alemanez —100.000 hiztun baino gutxiago— etiketatzen du Coca-Colak. Kontsumoa berriaz paretsu doa. Herbehereekin, Norvegiarekin eta Suediarekin egin dezakegu bigarren alderaketa. Herrialde horien bikoitza kontsumi-

tzen du katalan hiztun komunitateak, baina norvegiaraz, nederlandaraz eta suediaraz etiketatzen du Coca-Colak, ez katalanez.

Hogeitaz batzuetan bilera bat

Plataforma per la Llengua sortu zenean egin zuen lehenengo ekintza izan zen katalanez etiketatzeko kan-

Coca-Colak kontuan hartu ditu estoniera, islandiera, daniera...



Plataforma per la Llenguak Coca-Cola sinbolo gisa aukeratu du etiketajea katalanez eskatzeko, eta ederki daki hizkuntza politika bera gauzatzen dutela hainbat eta hainbat enpresa erraldoik. Oso antzeko bidea jarraitzen dute Kellogg's, Danone, Bayer, Durex eta Nestlék. Elkartearik egindako ikerketaren arabera, ezkerreko mapako hizkuntza guztietan etiketatzen dute aipatu berri ditugun enpresek, eta inork ez katalanez.

paina. 15.000 Coca-Cola poto bildu zituzten Catalunya plazan 1993ko abenduan eta *Etiquetem en català* esaldia osatu zuten herritarrek bildutako potoekin. Orduz geroztik kanpaina bat baino gehiago egin du elkartek. Batean, milaka Coca-Cola poto bidali zituzten Espainiako enpresa ordezkari Cogebaren egoitzara, guztiek katalanezko etiketa itsatsita zutela. Bestean, 800 telefono dei egin zituzten astebetean Madrileko egoitzara. Cobega enpresa izan zen 1951n multinazional estatubatuarren kontzesioa lortu zuen lehenen-

goa eta Daurella familia zuen jabe. Enpresa horrekin eta Coca-Cola Españarekin sarri saiatu zen Plataforma per la Llengua bilera lotzen, baina beti ezezkkoa. Azkenean, 2007an lortu zuen bilera. Bigarren baterako geratu ziren... eta gaur arte. 2013az geroztik Coca-Cola Iberian Partners du izena AEBetako enpresaren filialak eta egoitza Madrilen du. Elikagaien sektorean, Espainian gehien fakturatzen duen enpresa da; 3.000 milioi euro urtero. ■

